



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 01. 22 (2018.02.09n zuzenduta)

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bian, goizeko zortzietan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gairerrendan agertzen diren puntuak aztertzeke.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vázquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. Aurreko akta onartzea.
2. "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"n jasotako obren 7. ziuertagiria onartzea (1823/17/CMSL faktura).
3. Tolosako "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko exekuzio unitateko kontzertazio hitzarmen proposamenari hasierako onarpena ematea.
4. 21. Papelera Araxes" Hirigintza Esparruko Hiri Antolaketarako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea.
5. lurreamendi egoitzako 26/2017, 27/2017, 28/2017, 1/2018 eta 2/2018 faktura-zerrendak.
6. 73/2017 eta 74/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko urtarrilaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.



2. “Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”n jasotako obren 7. ziurtagiria onartzea (1823/17/CMSL faktura).

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitu zion “Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....792/17/CMSL.....41.943,82 €

1. ziurtagiria (BEZik gabe).....793/17/CMSL.....5.948,06 €

2. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....901/17/CMSL.....58.423,39 €

2. ziurtagiria (BEZik gabe).....902/17/CMSL.....12.273,36 €

3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....1065/17/CMSL.....116.629,34 €

3. ziurtagiria (BEZik gabe).....1066/17/CMSL.....18.318,82 €

4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....1284/17/CMSL.....181.375,75 €

4. ziurtagiria (BEZik gabe).....1285/17/CMSL.....41.407,12 €

5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....1682/17/CMSL.....138.083,55 €

5. ziurtagiria (BEZik gabe).....1517/17/CMSL.....24.985,51 €

6. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....1683/17/CMSL.....151.413,79 €

6. ziurtagiria (BEZik gabe).....1684/17/CMSL.....30.833,52 €

GUZTIRA.....821.636,03 €



Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako zazpigarrena, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
7. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1823/17/CMSL.....	150.948,91 €
GUZTIRA.....		150.948,91 €

Ziurtagiri honetan ez da egin Gipuzkoako Urak eta Tolargi enpresei dagozkien lanik.

Orain aurkeztutako likidazioari onarpena eman diote Obra Zuzendaritzak eta Udalak kontratatua duen arkitekto aholkulariak.

Ziurtagiria hau aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 7. ziurtagiria onartzea. Zenbatekoa: 150.948,91 euro.

BIGARRENA.- Faktura ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, "Construcciones Moyua, S.L.", enpresari eta Kontu-hartzaitzari.

3. Hasierako onarpena ematea Tolosako "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko exekuzio unitateko kontzertazio-hitzarmen proposamenari.

2017ko azaroaren 28an, Bista-Alai SA merkantilaren izenean eta ordezkartzan, Administratzaile Solidario gisa, ari den Juan Carlos Soraluze Echanizek "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena aurkeztu du, tramitatua eta behin betiko onartua izan dadin.

Azpiesparru hau "6. Santa Klara" Hirigintza Esparruaren barruan dago antolatuta hirigintza aldetik Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, zeina 2009ko martxoaren 3an onartu zen behin betiko (2009ko martxoaren 31eko GAOa)

Hiri Ordenazioko Plan Orokorrean jasotako aurreikuspenak garatu eta doitzeko, azpiesparruko Xehetasun Azterketa formulatu zen, eta 2013ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zen, baldintza batzuekin, behin betiko. Horretarako, Testu bategin bat



TOLOSAKO
UDALA

aurkeztu behar izan zen, eta irailaren 24ko 2013/1301 Dekretuaren bidez onartu zen (206. GAOa, 2013ko urriaren 29koa).

2017ko urriaren 30ean, Gobernu Batzordeak behin betiko onetsi zuen azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa, zeinetatik ondorioztatzen den azpiesparruarekin bat datorren exekuzio unitate bat, eta kontzertazioa ezartzen da jarduketa sistema gisa.

Bista Alai SA izanik azpiesparruaren barruan dauden lursailen jabe bakarra, 2017ko abenduaren 20ean aurkeztutako informazio-ohar soilen arabera, "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena aurkeztu du tramitatua, onartua eta formalizatua izan dadin.

TXOSTEN JURIDIKOA

1.- Txostenaren xedea

Txostenaren xedea da aztertzea, batetik, Bista Alai, S.A. Aurkeztutako "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmen proposamenari hasierako onarpena ematearen egokitasuna eta, bestetik, dagozkion izapideak burutu ondoren, behin betiko onarpena emateko bideragarritasuna.

2.- Organo eskuduna

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.q) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontzertazio Hitzarmen proposamenari hasierako onarpena emateko organo eskuduna alkatea da. Baina, 2015eko uztailaren 28ko 1.278 Dekretuaren arabera, Lege bereko 21.3 eta 23.2.b artikuluek emandako eskumenak baliatuz, Alkateak eskumen hau Gobernu Batzarrarengan eskuordetua du.

3.- Araudi aplikagarria

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiria Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Tolosako Hiri Antolaketako arauen testu bategina (GAO 60 zk; 2009/03/31).

4.- Jardunbidea hasteko erabakiaren gutxieneko edukia

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 160.2 eta hurrengo artikuluen arabera:

Kontzertazio-sistemaz jardun ahal izateko, beharrezkoa izango da betiere hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen horretan gutxienez lurzoruaren jabetzaren % 50 baino gehiagok honako konpromiso hauek bere egitea:

- a) Hitzarmen-batzarra osatzea hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Batzarraren bidez birpartzelatze-agiria egitea, jarduketaren onurak eta kargak ekitatez banatzeko.



TOLOSAKO
UDALA

c) Nahitaez eta doan laga beharreko lursailen eta ondasunen ekarpena egitea, legean, plangintzan edo hitzarmenean ezarrita dagoen bezala.

d) Jarduketa-unitateari legeak, plangintzak edo hitzarmenak izendatutako urbanizatze-karga guztiak bere kontura izatea eta urbanizatzearen, azpiegituren eta zerbitzuen obra guztiak egikaritzea.

Bista Alai, S.A., aurkeztutako jabeago erregistroko dokumentazioaren arabera lurzoruaren jabetzaren % 100aren jabea da. Eta hitzarmen proposamenanean legeak xedaturiko betebeharrak bere gain hartzen ditu.

Legearen 160.5 artikulua haxe xedatzen du:

Ez da beharrezkoa kontzertazio batzordea sortzea eragindako eremu osoa jabe bakar batena denean; jabe horrek hartuko ditu bere gain lege honek batzordeari egotzitako betebeharrak guztiak, eta dagokion hitzarmena sinatuko du.

Bista Alai, S.A., lurzoruaren jabetzaren % 100aren jabe izanik ez da Kontzertazio Batzordea sortu beharko.

Jarraian, 160.6 artikulua haxe dio:

Jabeek administrazioaren aurrean bereganatzen dituzten konpromisoak dagokienez, hitzarmenaren sinatzaileek urbanizatze-kargen zenbatekoaren % 7ren abala formalizatu eta entregatuz bermatuko dituzte konpromisoak.

Ez da abala aurkeztu eta ondorioz, Kontzertazio Hitzarmenari behin betiko onarpena eman eta hitzarmena sinatu baino lehen urbanizazio kargen zenbatekoaren % 7ren abala aurkeztu beharko da. Hau da, Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 30ean behin betiko onartutako Urbanizatzeko Jarduketa Programaren edukiaren arabera, abalaren zenbatekoa 56.907,06 €-koa izan beharko du.

2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorruta, Gobernu Batzarrak hasierako onarpena eman eta gero, hitzarmen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, jendaurrean 20 egun egoteko.

ONDORIOA

Aurreko guztiaren arabera, honakoa ebatzea proposatzen da:

Lehena.- Bista Alai, S.A., entitatearen izenean Juan Carlos Soraluze Echanizek aurkeztutako "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena behin behinean onartzea.

Bigarrena.- Hala badagokio, behin betiko onarpena eman aurretik urbanizazio kargen zenbatekoaren % 7ren abala (56.907,06 €) aurkeztu beharko du.

Hirugarrena.- Hitzarmen proposamena 20 egun jendaurrean jarrita edukitzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emanda.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatutakoa kontuan izanik eta Hirigintza Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea, Bista Alai, S.A., entitateak aurkeztutako, “6.1 San Kosme eta San Damian” azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamenari. **Dokumentuaren behin-betiko onspina eman ahal izateko, aurretik urbanizazio zamen zenbatekoaren %7ko abala (56.907,06 €) ezarri beharko du enpresa sustatzaileak.**

Bigarrena.- Hala badagokio, behin betiko onarpena eman aurretik urbanizazio kargen zenbatekoaren % 7ren abala (56.907,06 €) aurkeztu beharko du.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jarrita edukitzea 20 egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Xede horretarako hitzarmen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da oso-osorik.

4. 21. Hasierako onarpena ematea Papelera Araxes” Hirigintza Esparruko Hiri Antolaketarako Plan Bereziari.

Tolosako Udalak 2009ko martxoaren 3an egindako Osoko Bilkuran behin betiko onarpena eman zion Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Testu Bateratuari, zeina 2009ko martxoaren 31n argitaratu baitzen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Plan Orokorrean jasotakoaren arabera, “21. Araxes Papertegia” hirigintza esparruari dagokionez beharrezkoa da hirigintza esparru honi dagokion antolamendu xehatua Plan Berezi baten bidez zehaztea.

Fernando Carazo Amundarainek, 2012ko maiatzaren 10eko datuz eta SOLARPAP, S.A.ren izenean “21. Araxes Papertegia” hirigintza esparruari dagokion Hiri Antolaketarako Plan Berezia aurkeztu zuten.

Udal arkitektoaren UA12065 txostena aintzat hartuz, hasierako onarpena eman aurretik hainbat aldaketa egin beharra zegoela jakinarazi zitzaion 2012ko urriaren 4ko idatziaren bitartez.

Idatzi honi erantzunez dokumentazio egokitua aurkeztu zuten 2012ko abenduaren 12ko datuz Plan Bereziari hasierako onarpena emateko eskatuz.

2013ko martxoaren 6ko (UA13018) udal arkitektoaren txosten tekniko berri baten bitartez, berriro ere zehaztu zitzaizkion aipatu dokumentuan burutu beharreko zuzenketak zeintzuk ziren.



TOLOSAKO
UDALA

2013ko martxoaren 22an Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion Plan Bereziari, hainbat baldintzari lotuta. Argitara egondako denboran hainbat alegazio aurkeztu ziren eta hauen ondorioz, Udalbatzak, 2013ko irailaren 24an Plan Berezia behin betiko ez onartzea erabaki zuen. Era berean betebeharreko baldintza berriak zehaztu zizkion.

2016ko urtarrilean promotoreak Foru Aldundiko Errepide Sailari biribilgunea kentzeko proposamena egin zion eta honi erantzunez Foru Aldundiak proposamen bat egin zuen.

Era berean, 2016ko irailaren 29ko jakinarazpenaren bitartez Araxes paper-fabrika eta bere azpiegitura hidraulikoak monumentu-multzoaren kategoriarekin sailkatutako kultura-ondasun izendatzeko espedienteari hasiera eman zitzaiola jakinarazi zen. Behin betiko deklarazioa uztailaren 18ko 197/2017 Dekretuaren bitartez eman zitzaion.

2017ko apirilaren 4ean Plan Bereziaren ale berri bat aurkeztu zuten. Eta geroztik sortutako aldaketak tarteko, beste ale berri bat 2017ko urriaren 31ko dataz. Zeinarekin batera hasierako onarpena emateko eskaera aurkezten den.

Ikusita aurreko Planeamendua ez zela onartu gehienbat URA-k jarritako baldintzak ez zirelako betetzen, udal arkitektoak egin du txostena, non egiaztatzen den zuzendu egin direla aurrez eman ziren akatsak planeamendua ez onartzeko.

Hala ere, Udal arkitektoak baldintzatu egin du hasierako onarpena hainbat baldintzari. Baldintza hauek ez dira funtsezkoak.

Hala ere badago gai bat ez dagoena argituta: Planeamenduan azaltzen den 2. erakinaren hazkundeak Araxes erreko Garrantzi Komunitarioa duen Lekua hartzen du zati txiki baten. Hasiera batean ez dirudi eraginik izan beharko lukeenik, izan ere, aurrez ere eraikina hor dago, baina badaezpada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Lurralde Plangintza Sailaren txostena eskatu beharko da, argitzeko ebaluazio bateratua burutu behar den edo ez.

Toki-erakunde oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.j) artikularen arabera, Alkatearen eskumena da Plan bereziari hasierako onespina ematea, baina 1278/2015 Dekretuaren arabera, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzordeari delegatu zitzaion.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Hirigintza teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.-21. Hasierako onarpena ematea Papelera Araxes” Hirigintza Esparruko Hiri Antolaketarako Plan Bereziari, ondorengo baldintzekin:

1.- Konsolidatutako zonaren arau partikularretan honako testu hauek gehituko dira:



- Zati idatzian zehaztuxeago dago kontsolidatutako zonaren ordenazio xehatua: “Dagoen eraikigarritasun fisikoa kontsolidatu egiten da. Baldin eta eraikigarritasun fisiko hori banatu nahi bada ez orain ezarri den moduan, baizik eta beste era batera, Xehetasun Azterketa bat tramitatu beharko da”._Hau gehitu beharko litzaioke: “ hori guztia, eraikinaren ondare-babesaren kaltetan izan gabe”.
- Jartzen du “eraikinaren oraingo konfigurazioa aldatzen duen edozein obra espezifiko edo instalazio egiteko, Xehetasun Azterketa bat tramitatu beharko litzateke”. Hau gehitu beharko litzaioke: “hori guztia, eraikinaren ondare-babesaren kaltetan izan gabe”.
- Eraikinaren barne-partzelazioa: Testu hau gehitu behar zaio memoriari: “Onargarria izango da eraikinaren banaketa jabego horizontalaren erregimenean, beti ere proiektu bateratu batean oinarrituta, zeinak eraikin osoa hartu beharko duen eta dagokion udal lizentzia izan beharko duen.”

2.- 107 izeneko planoan gehituko da monumentu-multzoaren kategoriaren sailkapena.

3.- Baldin eta erabilera nagusia tertziariora aldatzen bada, 123/2012 Dekretuko, Hirigintza Estandarrei buruzkoa, 6. artikuluan aurreikusten den aparkaleku pribatuen estandarra bete beharko da.

Bigarrena.- Hasierako onarpena argitara ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta tirada handieneko egunkarietan (20 egunez egongo da jendaurrean azken argitalpenetik kontatzen hasita) argitaratuz.

Hirugarrena.- Ondorengo txosten sektorialak eskatzea.

- URA, Ur Agentzia.
- Gipuzkoa Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak Departamentuarena.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarena, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua burutu behar den edo ez argitzeko.

Txosten horiek baldintza lotesleak ezarri gero, Plana Behin betiko izaeraz onartu ahal izateko baldintza horietara egokitu beharko da.

Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ebazten badu ingurumen-inpaktuen ebaluazio bateratua burutu behar dela, Planeamenduaren izapidetzea eten egingo da, ebaluazio bateratua burutu egin arte.

5. lurreamendi egoitzako 26/2017, 27/2017, 28/2017, 1/2018 eta 2/2018 faktura-zerrenda.

Gaia mahai gainean geratu da. Izan ere, ordainagiri hauen onespena lurreamendiko lehendakariaren ahalmena da



TOLOSAKO
UDALA

6. 73/2017 eta 74/2017 faktura-zerrendak.

Kontuhartzaileak **73/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **4,403,38 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **73/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailezari.

.....

Kontuhartzaileak **74 /2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **136.566,26 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **74/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailezari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia aztertu eta bozkatu da:

(Gai honi dagokion akta 2018.02.09n egindako bilkuran onartu da)

- **Inauterietako konpartsek Udal Ferialekua erabiltzeko baldintzak onartzea.**

AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udala honako finkaren jabea da:

Ferialekua izeneko eraikina, San Esteban auzoak kokatua. Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, ondokoetan:



TOLOSAKO
UDALA

- *Tomoa: 891*
- *Liburua: 106*
- *Folioa: 1*
- *Finka 5516*

Bigarrenena.- Udalaren asmoa da finka horretan inauterietako konpartsen karroza txikiak egin eta biltegitzeko udal zerbitzu publikoa ematea, toki-erakunde bezala kultura eta aisiako zerbitzuak ematearen inguruan dituen eskumenen barruan, bat etorrira Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20. eta 33. apartatuetan xedatutakoarekin.

Hirugarrenena.- Adierazitako arrazoiengatik, Lehen apartatuan deskribatutako lokala da jabari publikoko ondasun bat, festetako udal zerbitzuari atxikia.

Laugarrenena.- konpartsak/elkartek udal honi baimena eskatu dio aipatutako lokalaren zati bat erabiltzeko, 2018ko inauterietan erakutsiko duten konpartsen karroza txikia egin eta biltegitzeko jardueretarako erabiltzeko. Jarduera hori da erabilera erkide berezi bat, zeren ez dituen baztertzen beste elkarte edo konpartsek sustatzen dituzten antzeko erabilerak, elkarte edo konpartsa horiek denek lagatako lokala partekatu behar dutelarik, dagokion udal lizentzian helburu horretarako ezartzen diren baldintzen arabera. Jabari publikoko ondasunen erabilera erkide bereziak lizentzia behar du, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen 1372/1986 EDaren 77. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrenena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrarena da ebazpen hau emateko eskumena, bat etorrira Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q) eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kultura teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Ondorengo baldintzak onartzea, inauterietako konpartsek Ferialekua erabiltzeko.

IñAUTERIETAKO KONPARTSEK FERIALEKUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Tolosako Udalak baimena emango dio..... Konpartsari, Ferialekua erabili dezan, ondoko baldintzak kontuan hartuta:

Lehenena.- Konpartsak egiten dituzten eragileek edo pertsonak elkarte bat sortu ahal dute, beren jarduera aurrera eramateko eta behar diren tramiteak errazteko. Hori egin ezean, batetik, ordezkari



bat izendatu beharko dute Udal honekiko harremanetarako, eta, bestetik, dituzten kide guztien zerrenda Udalari eman.

Konpartsako kideek adinez nagusi izan behar dute. Adin txikikoak badira, beren gurasoek ordezkatzeko dituzte Udal honen aurrean.

Bigarrena.- Lizentziak baimendutako elkarte eta pertsonak erabili beharko dute lagatako lokala lagapenaren helburuetarako ez bestetarako, hau da, konpartsak egiteko, eta lokal horretan ez da baimenduko beste inolako jarduerarik.

Hirugarrena.- Lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek egindako jardueretan zorrotz errespetatu beharko dituzte laneko arriskuak eta laneko osasuna prebenitzeko neurriak. Alde horretatik, Udalak edozein momentutan egin ahal izango ditu bere ikuskapenak, aipatutako araudia betetzen dela bermatzeko.

Laugarrena.- Erabiltzaileek saihestu beharko dute arrisku-, ausarkeria-, zurgabekeria- edo arduragabekeria-egoera oro, eta Udal honen eta hirugarrengoen aurrean erantzun beharko dute, baldin eta lizentzia honetan xedatutakoari jaramonik egiten ez badiote.

Bosgarrena.- Lizentziaren titular diren pertsonak erantzun egin beharko dute egiten duten jardueraren ondorioz, edo soilik lokala okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik —dela pertsonari, dela ondasunari egindakoak—. Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzun egin beharko dute. Erantzun egin beharko dute, orobat, pertsonari egindako kalte eta lesioengatik, halakorik egiten bada, pertsona horiek lokalaren eta instalazioen erabiltzaileak izan edo Ferialekuarekin zerikusirik ez duten beste batzuk izan. Pertsonari lesioak edo ondasunari kalteak eginez gero, ordaindu beharreko kalte-ordainak izango dira bakar-bakarrik lizentziaren titularren kontura, zeinek Udal hau erantzukizun guztietatik salbuesten duten, eta ez da beharko frogatzeko elementurik.

Seigarrena.- Lokala erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek beti errespetatu beharko dituzte udal zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak. Halaber, honako agindu hauek errespetatu behar dira:

1. Udalak lokaleko tokiak banatuko ditu kontuan harturik jasotako eskaerak eta pertsona edo erakunde sustatzaile bakoitzaren beharrak.
2. Udalak lokaleko giltza bat emango du emandako lizentzia bakoitzeko, eta debekatuta dago giltza horren kopia egitea.
3. Pabiloiko ateak beti itxita egon behar du, eta debekatuta dago bertan egiten den jarduerarekin zerikusirik ez duen edozein sartzeari.
4. Azkena ateratzen denak itzali beharko ditu koadroko argiak.
5. Debeekatuta dago lokalaren barruan ibilgailuak aparkatzea.
6. Udalak mugatu edo debekatu ahal izango du instalazioetara sartzeari, interes publikoko arazoak direla eta.
7. Konpartsek su-itxalgailu bana eduki behar dute, eta karrozak egiteko erabiltzen diren materialek ahal den erresistentziarik handiena izan behar dute suaren kontra.
8. Saiatu behar da karrozek ez izatea konpartsako kideentzat edo beste pertsonentzat arriskutsuak izan litezkeen elementuak, dela eraiki eta biltzeko garaian, dela jendaurrean erakusteko garaian.
9. Karroza bakoitzaren gehieneko neurriek udal zerbitzu teknikoek xedatuko dute.
10. Beren egonkortasunak bermatuta egon behar du.
11. Baldin eta karroza pneumatikoen gainean badoa, pneumatikoen behar bezalako erabilera-baldintzak eduki beharko dituzte: marratua, egonkortasuna...
12. Karroza guztiek izan behar dute direkzio-mekanismo egokia, maniobrak erraz egiten uzten duena.
13. Gidatu behar badira, izan behar dute ikuspen-baldintza onekoak eta gidaria erraz sartzeko modukoak.
14. Motor-elementuek ez dute arriskurik sortu behar.



TOLOSAKO
UDALA

15. Karrozek babesteko hegal bat eduki behar dute beren perimetro osoan.
16. Argi-sistema ezin da gertu egon elementu erregai edo sukoietatik.
17. Erregaiaren birkarga ibilgailua gelditu dagoela egin behar da.

Zazpigarrena.- Jarduera bukatutakoan, lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek elementu guztiak erretiratu egin behar dituzte eta pabiloia txukun utzi, jaso zuten bezala. Alde horretatik, Udalak eman ahal izango du dagokion exekuzio-agindua, baita agindutako eginkizunak modu subsidiarioan exekutatu ere, lizentziaren titular diren erakunde eta pertsonen kontura.

Zortzigarrena.- Lokala erabiltzeko baimena prekarioan ematen da; beraz, Udalak edozein unetan utzi dezake baliorik gabe, interes publikoko edo legezkotasun- edo egokitasun-arrazoiengatik.

Halaber, lizentziaren baldintzak ez betetzeak, berarekin batera, ekarriko du lizentzia baliogabetzea eta lokalaren erabilera bertan behera uztea, interesatuari entzunaldia eman ondoren, kalterik egin gabe kasuaren arabera bidezkoa den zehapen-prozedurari.

Bederatzigarrena.- Lizentziaren indarraldia otsailaren 23 artekoa izango da. Otsailaren 15aren eta 23aren artean, pertsona fisiko eta juridikoek lokala hustu eta garbitu beharko dute.

Hamargarrena.- Emandako lizentziak izaera administratiboa duenez, Tolosako Udalak ematen dituen ebazpenak berehala betearazi beharko dira bide administratiboari amaiera ematen badiote, bide horretan errekurrituta daudela kontuan izan gabe.

Emandako lizentziekin zerikusia duen eztabaida guztiak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan konponduko dira.”

BIGARRENA.- Tolosa Udaleko Kultura Departamentuak erabaki hauek jakinaraztea baimendutako konpartsa edota karroza sustatzaile bakoitzari, dagokion jakinarazpen formala eginez (jaso-agiria barne).

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek interesatuari eta Tolosako Kultura Departamentuari jakinaraztea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA